



Tximinoa, salbaia eta elbarritua



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Tristezia ez, ondokoa. Eta etsipen handia. Aurten bi sorkuntza erditu ditugu ("Lurrez Estali" eta "Bidasoa Mintzatuko Balitz"), arrakasta handia bildu dugu eta, hala ere, sentimendu garrantz batek tinkatzen dit zintzurra.

30 bat urte daramazkit antzerkian lanean, hots: idazten, antzezten, zuzentzen, erratza pasatzen, txostenak egiten, bilkurak, prentsaurrekoak, gaupasak, komunak garbitzen, eskailerak igo-tzen, gidatzen, karga-deskarga, fokuak, kableak eta e-mezuak... Eta gauza bat behintzat ikasi dut bidean: euskal kultura ez da gai bat, iragarki bat da. Excel pantailan betetzear dagoen laukitxo bat. Zereginen zerrendan azken lerroan kokatzen den zera bat. Euskal kultur arloan bizi den prekaritatea, ezintasuna eta etsaitasun permanentea (askotan galdekatuak, gutxietsiak edo irainduak gara euskaraz aritzeagatik) ez da gai bat. Euskal artea euskal hiztunen arnagune bakarra da, baina arnasa ez da gai bat.

Tximinoa naiz, imitazioz ikasten dut, eta nire sentimenduak, emozioak eta hausnarketak adierazteko gaitasuna ditudan imitazio aukerei zuzenki lotua da. Lehen musua emateko, zineman ikusitako musuak eskarniatzen saiatu naiz. Nire amatxi zendu zenean, edo laguna ospitalean betiko agurtu behar izan nuen, irakurritako liburuek lagundu ninduten nire sentimenduak ulertzen eta argitzen. Nire haurren lehen urratsen poza partekatzen ikasi dut. Kulturala

Aurrekontu katastrofikoak eskaintzen dira euskal kulturarentzat, euskal artisten gehiengo zabala prekaritate eta segurtasun eskas handian bizi da, eta orduan zer? Lepoan hartu eta segi aurrera?

da. Horra euskal artearen funtzioa eta betebeharra: hizkuntza aberastea, elikatzea, emozioak komunitatean partekatzea, eta gizatasuna askatasunez bizitzeko aukera bihurtzea. Antzerkian, une soil batez, komunitate baten parte naiz, euskaraz existitzen naiz pentsatu gabe euskaraz bizi naizenik. Herriaren baitan sentitzen, pentsatzen eta aurrera egiten dut.

Horrek ez al du babes minimo bat merezi? Horrek ez al du baliorik? Maila guztietan aurrekontu katastrofikoak eskaintzen dira euskal kulturarentzat, euskal artisten gehiengo zabala prekaritate eta segurtasun eskas handian bizi da, eta orduan zer? Lepoan hartu eta

segi aurrera? Hau da gure herriari eskaintzen zaion plan estrategikoa? Euskal kulturak bazterreko sari banaketetan lehiatzen du, bazterreko aurrekontuekin, bazterreko espazioetan. Alfonbra gorria zapaltzekotan, bikoiztua edo hizkuntza menderatzailean izan behar da. Salbaia, hizkuntza zibilizatuan men egiten du beti.

Sentimenduak eta pentsaera lotzeko zailtasuna, gaur egungo euskaldungoaren gaixotasun kronikoa bilakatzen ari da: "alexitimia". Laburki erranda: elbarritu mentalak gara. Des-euskalduntze prozesua hor errotzen da, eduki emozional eta komunitarioen gehiengo erdaraz hedatzen da. Hori politika publiko baten ondorio zuzena da. Gure haurren hizkuntza eskubideak bermatzeko, epaitegien aurrean edo prentsaurrekoan egiten diren adierazpenek ez dute eragin handirik. Aurrekontuek bai. Babes politikoak bai. Egitasmo estrategikoez bai. Baina kulturaz mintzo diren diskurtso antzuak entzuterakoan, lelo bat heldu zait burura: "Txosten gutxiago eta liburu gehiago". Hori izango da gure funtsezko iraultza politikoa.

Hizkuntza eta kultura beti izan dira herriaren eta askatasunaren bihotza; eta beste alde batera begiratuta, *baskismoan* erori gara. Abertzaletasuna hil da agian? Ez dakit. Batzuetan hala uste dut. Alexitimia eta txostenen kulturak *baskismoa* lehenetsi du eta abertzaletasuna kolonialismoaren baratzean ehortzi. ●